



fr

EBAZPENA, 2011EKO EKAINAREN 9KOA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIARENA; HONEN BIDEZ BEHIN-BETIKO EBAZTEN DA IBAIONDO IKASTETXEA ZERBITZU EMATEKO HAINBAT LANPOSTU ZERBITZU-EGINKIZUNEAN BETETZEKO DEIALDIA.

2011eko apirilaren 12koa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariaren Ebazpenaren bidez, Ibaiondo heziketa-zxentroa zerbitzuak emateko hainbat lanpostu zerbitzu-eginkizunean betetzeko deia egin zen.

Deialdiko zazpigarren artikuluari jarraituz, *"Langileriaren Kudeaketa zuzendariak zerbitzu-eginkizunei buruzko behin betiko Ebazpena emango du, eta Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako iragarki-oholetan argitaratuko da"*.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa ezarri duen irailaren 14ko 233/2010 Dekretuaren 10. artikulua xedatutakoa kontuan izanik,

EBATZI DUT

Lehena.-Argitaratzea Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako iragarki-oholetan eta Saileko web orrialdean I. Eranskinean jaso den deialdiaren behin-betiko emaitza

ERREKURTSOAK

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatuak, bere 114. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko ekainaren 9an
LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

Juan Manuel Aramendi Arteaga

Ibaiondo-Zumarraga

EBAZPENA-RESOLUCIÓN

AULA CINECIA-TECNOLÓGIA/ ZIENTZIA-TEKNOLOGIA GELA

IRADI ARTEAGA ELISABET

